

Smile Machines

Transmediale 06

Akademie der Künste, Berlin

2006ko otsailaren 3tik martxoaren 19ra

Robot atsegin eta ezerez batek baldarki erreakzionatzen du ikusleen aurrean, laztan bila ariko balitz bezala. Beste bat urduritzen hasten da inor laguntzen ahalegintzen zaionean, eta mugikor mekaniko eta kalamasra batek, eguneroko objektuez egina, hondakin-materiala mugitu eta tokiz aldatzen du. *Petit mal*, Simon Penny-rena, *Helpless Robot*, Norman White-rena, edo *Remue-ménage*, Jean-Pierre Gauthier-ena dira artearen historialari eta Paris I unibertsitateko irakasle Anne-Marie Duguet komisariotzat zuen *Smile Machines* erakusketarako ikustaldian ikusleek topatu zituzten obretako batzuk; erakusketa joan den otsailean zabaldu zuten Berlinen, *transmediale.06. festival for art and digital culture* delakoaren barnean.

Eraikuntza robotiko-eskulangintzazko horiek zalantzan jartzen dute gizakiaren eta makinaren arteko harremana, horretarako afektibotasunetik, errebelamendutik eta botereaz jabetzetik zein objektuen autonomiatik abiatuz, baina, horretaz gain, zeharo teknologiaren mende dagoen eta konplexua den mundu baten kontraste begi-bistakoan kokatzen dira, brikolajerako tarte gutxi dagoen munduan”. *Smile Machines*-eko lanen aukeraketak proposamen kritiko bat egiten digu teknologiaren eta artearen arteko loturei eta hauek eguneroko bizimoduan duten islari buruz, umorea baliatuz, inolaz ere, hari eroale gisa. Umore arrosa eta umore beltza. Ironia eta trufa. Lotsagabekeria eta probokazioa. Umorea teknika digitalez moldatutako edo, Anne-Maria Duguet-ek *Solasaldiak 1972-1990* hartako Deleuze aipatuz esango lukeen bezala, “modulatutako” gizarte batekiko urruntze eta horrixeko buruzko analisirako estrategia gisa. Fluxus taldearen eta 60ko urteetako lehen bideo-artearen obrak biltzen dituen ibilbide historiko batean zehar, eta 90eko urteetako elkarrekintza zein medioen kritikatik Interneteko aktibismora eta gaur egungo bideo-performanceetaraino iritsiz, *Smile Machines*-ek umorearen ahalmen kritiko, terapeutiko eta analitiko esploratzen duten hainbat jarrera artistiko eskaintzen ditu.

Umore beltza emakumeen kontua da *Smile Machines*-en. Maja Bajevic-en *Black in Black*-en (2003), bosniar talde batek mastekatu egiten ditu gerraren ondorioak, kamera aurrean gatazka armatuari buruzko txiste ezinezkoak kontatuz. Tamy Ben-Tor emakumezko artista israeldarrak hautsi egiten du Hitler-en irudikapenaren tabua, bere *Hitler, the Horror and the Horrah* (2003) bideo eztabaidatsua bidez, Hitler-ez mozarrotzen diren emakumeez mozarrotuz edo hari buruzko zenbait iritziren karikatua eginez. Eva Meyer-Keller-ek behin eta berriz torturatzen ditu gerezi gorri distiratsuak, objektu kaltegabeak erabiliz, *Death is Certain* (2004) lanean, eta Annette Messenger-ek esaera misoginoak bordatzen ditu josteko oihaletan, baldarki jokatzu propio, *Ma collection de proverbes* (1974) lanean.

Antoni Muntadas-ek medioei buruz *Slogans* (1986-87) bideo-instalazioan egiten duen kritikak publizitatearen glamour hotza birstortzen du, estrategia eta sorgin-argi komertzial sotilen aurrean jarriz ikuslea. Era berean, Christian Möller-ek *Cheese* (2003) lanean zalantzan jartzen du hedabideen autentikotasuna: sei aktore jartzen ditu kamera aurrean ahalik eta denborarik luzeenez irribarrez, eta seriotasun aztarnarik txikiena agertu orduko zigortu egiten ditu.

Georges Maciunas-en proposamena da, ordea, irribarrea ez galtzeko modurik onena; bere *Flux Smile Machine*-ekin (1971), ahoko giharrak tenkatzen dituen dispositibo bat baita, irribarre iraunkor bat eragiten du, eta gutxieneko mailara darama irribarrearen eta imintzioaren arteko muga meharra. Erakusketari izena ezin egoki ematen dion obra da, ez bairik gabe.

María Morata

CC

Aldizkari hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Hemengo testuak nahiz itzulpenak kopian, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu. Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu: http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu